# 3.8.1. UDAL-ALORRAK. GIZARTE-EKINTZA. OINARRIZKO LAGUNTZA.

## OINARRIZKO LAGUNTZA

### AUZO-UNITATEAK. ERABILTZAILEAK

2017an, Iruñeko Auzo Unitateek 41.608 kasu artatu zituzten. Kopuru horrek apurka-apurka goraka egin du 2008. urteaz geroztik (23.576 kasu artatu ziren orduan).

| | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|
| Artatze kopurua | 37.468 | 42.647 | 41.667 | 43.391 | 41.608 |

### AUZO-UNITATEKO ARTATZEEN KOPURUA ETA AUZO BAKOITZEKO BIZTANLE GUZTIEN GAINEKO EHUNEKOA

| Auzo-unitatea | 2013 | % | 2014 | % | 2015 | % | 2016 | % | 2017 | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Buztintxuri** | 1.782 | 5,21 | 2.259 | 5,56 | 2.224 | 5,34 | 1.793 | 4,13 | 1.524 | 3,66 |
| **Alde Zaharra** | 3.827 | 9,91 | 3.837 | 9,44 | 3.675 | 8,82 | 3.337 | 7,69 | 3.202 | 7,70 |
| **Txantrea** | 5.297 | | 5.592 | 13,76 | 5.450 | 13,08 | 4.766 | 10,98 | 4.761 | 11,43 |
| **Etxabakoitz** | 1.954 | 5,94 | 2.830 | 6,96 | 3.216 | 7,72 | 1.916 | 4,42 | 1.886 | 4,53 |
| **Zabalgunea** | 2.938 | 8,20 | 3.434 | 8,45 | 3.375 | 8,10 | 3.514 | 8,1 | 3.721 | 8,94 |
| **Ermitagaña** | 1.676 | 5,16 | 1.899 | 4,67 | 2.060 | 4,94 | 1.610 | 3,71 | 1.732 | 4,16 |
| **Iturrama** | 1.666 | 4,48 | 1.506 | 3,71 | 1.465 | 3,52 | 2.422 | 5,58 | 2.686 | 6,46 |
| **Mendillorri** | 1.360 | 4,30 | 1.442 | 3,55 | 1.799 | 4,32 | 2.654 | 6,12 | 2.048 | 4,92 |
| **Milagrosa** | 4.140 | | 4.849 | 11,93 | 5.203 | 12,49 | 7.156 | 16,49 | 6.438 | 15,47 |
| **Arrotxapea** | 5.759 | | 6.380 | 15,70 | 6.564 | 15,75 | 7.846 | 18,08 | 7.151 | 17,19 |
| **Sanduzelai** | 2.871 | 8,27 | 3.960 | 9,75 | 3.488 | 8,37 | 3.484 | 8,03 | 3.610 | 8,68 |
| **Donibane** | 2.665 | 6,09 | 2.645 | 6,51 | 3.148 | 7,56 | 2.893 | 6,67 | 2.849 | 6,85 |

### AUZO-UNITATEAK. PROGRAMAK

Auzo-unitateei esker, herritarrek oinarrizko laguntzako lau programa eskuratzen dituzte, baita Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko prestazioak ere:

**HARRERA ETA GIZARTE-ORIENTAZIOKO PROGRAMA.** Herritar guztiei zuzenduta, haien eskariak jasotzea du xede. Herritarren arazoei lehen erantzuna eskaintzen die, gizarte-babeserako sistemetako prestazioak eskuratzeko bide emanez eta, behar izanez gero, oinarrizko laguntzako edo laguntza espezializatuko gainerako programetarako sarbidea emanez.

**NORBERAREN AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARTA EMATEKO PROGRAMA.** Udalak hainbat baliabide eskaintzen ditu, helburu hauek gogoan hartuta: norberaren autonomia sustatzea, mendekotasunezko egoerei aurrea hartzea, eta laguntza ematea bere kabuz moldatzeko arazoak dituzten pertsonei eta mendekotasunean daudenei edo egoteko arriskua dutenei, betiere beren ohiko ingurunean. Behar izanez gero, gainera, etxetik kanpoko baliabide ordezkoak eskuratzeko aukera ematen du, banakako, taldekako eta izaera komunitarioko artaren bidez. Programa honetako langileek Nafarroako Mendekotasunaren Agentziaren (MNA) eta Etxez Etxeko Laguntzako Udal Zerbitzuaren (EELZ) prestazioak kudeatzen dituzte.

**MENDEKOTASUNAREKIN LOTUTAKO PRESTAZIOAK, AUZO-UNITATEETAN KUDEATUTA**

| AUZO-UNITATEAK | MENDEKOTASUNA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Mendekotasunaren balorazioa | | BAP | | Familia-ingurun. zaink. diru-laguntzak | |
| | 2016 | 2017 | 2016 | 2017 | 2016 | 2017 |
| **Buztintxuri** | 12 | 16 | 11 | 20 | 4 | 3 |
| **Alde Zaharra** | 78 | 87 | 71 | 79 | 29 | 31 |
| **Txantrea** | 222 | 212 | 198 | 220 | 100 | 70 |
| **Etxabakoitz** | 47 | 34 | 46 | 32 | 30 | 12 |
| **Zabalgunea** | 255 | 306 | 237 | 290 | 122 | 96 |
| **Ermitagaña** | 189 | 234 | 146 | 173 | 80 | 55 |
| **Iturrama** | 252 | 270 | 221 | 205 | 86 | 68 |
| **Mendillorri** | 62 | 62 | 62 | 58 | 22 | 20 |
| **Milagrosa** | 218 | 260 | 186 | 209 | 101 | 60 |
| **Arrotxapea** | 268 | 292 | 212 | 241 | 77 | 52 |
| **Sanduzelai** | 119 | 111 | 90 | 84 | 55 | 34 |
| **Donibane** | 268 | 237 | 254 | 224 | 119 | 67 |
| **Iruña** | 1.990 | 2.121 | 1.734 | 1.835 | 825 | 568 |

EELZk zuzeneko arta etxean bertan eskaintzen die zerbitzuaren hartzaileei, gehienez bi orduz egunero. Aurten 1.023 lagunek erabili dute haren prestazioren bat. Guztira zuzeneko arreta pertsonaleko 155.833,94 ordu eskaini dira 925 etxetan. Gainera, 84.233 bazkari eta 22.699 afari ere eman zaizkie 436 pertsonari, erabiltzaileen beharrei egokitutako menuekin. Azkenik, 732 garbitegi-zerbitzu egin dira 20 etxetan.

**HAURREI ETA FAMILIEI LAGUNTZEKO PROGRAMA.** Haurren eskubideak bermatzea du xedetzat programa honek, eta haien garapen pertsonala ahalbidetzen duen ingurunea bermatzea; horretarako, prebentzio, sustapen, babes, laguntza pertsonal, familiar eta sozialeko neurriak erabiltzen ditu, eta, babesgabetasun-egoerak daudenean, baita familiako esku-hartzea ere, baina adingabeen instituzionalizazioa saihesten da betiere.

| | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|
| Artatutako familiak | 617 | 710 | 844 | 792 | 992 |
| Artatutako adingabeak | 1.067 | 1.252 | 1.365 | 1.558 | 1.493 |

Programan 468 adingabe (244 mutil eta 224 neska) artatu dira lehendabizikoz 2017an. Aurten 92 adingaberen artatzea burutuko da (51 mutik eta 41 neska); hortaz, programaren barruko igoera 376 pertsonakoa izan da berez.

**- Familietan Esku Hartzeko Zerbitzua (FEHZ).** Haurren Programan berariazko baliabide hau dago; lehiaketa publiko bidez kudeatzen da, eta, babesgabetasun-faktoreak daudenean, adingabearen etxean bertan esku hartzean datza. 2016an, 89 familiari / 140 adingaberi eman zitzaien zerbitzua.

| | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|
| Familia kopurua | 126 | 123 | 140 | 148 | 89 |



**GIZARTERATZEKO PROGRAMA.** Helburua da bazterturik gelditzeko arriskuan edo bazterturik dauden pertsonen gizarteratze-bidea sustatzea; hartara, banakako gizarteratze-ibilbideak diseinatzen dira, eta pertsona horiek gizarte- eta hezkuntza-laguntza jasotzen dute. Halakoetan, elkarrekin esku hartzen dute gizarte-laneko eta gizarteratze arloko teknikariek, eta Gizarte Enplegu Babestuarekin koordinazioan lan egiten dute.

| GIZARTERATZEKO PROGRAMA | Familia-unitateak | | Erabiltzaileak | | Gizarte- eta hezkuntza-laguntza duten pertsonak | | Arta psikologikoa duten pertsonak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Auzoa | 2016 | 2017 | 2016 | 2017 | 2016 | 2017 | 2016 | 2017 |
| **Buztintxuri** | 54 | 51 | 72 | 71 | 61 | 68 | 2 | 9 |
| **Alde Zaharra** | 64 | 70 | 76 | 83 | 52 | 37 | 5 | 17 |
| **Etxabakoitz** | 68 | 77 | 87 | 96 | 50 | 58 | 2 | 4 |
| **Zabalgunea** | 67 | 73 | 78 | 83 | 27 | 29 | 0 | 3 |
| **Ermitagaña** | 55 | 62 | 66 | 74 | 47 | 44 | 4 | 7 |
| **Iturrama** | 18 | 23 | 22 | 25 | 17 | 28 | 1 | 4 |
| **Mendillorri** | 43 | 44 | 55 | 56 | 41 | 35 | 2 | 3 |
| **Milagrosa** | 64 | 129 | 80 | 173 | 65 | 50 | 4 | 7 |
| **Arrotxapea** | 104 | 114 | 127 | 132 | 82 | 90 | 4 | 6 |
| **Sanduzelai** | 76 | 96 | 110 | 136 | 91 | 123 | 3 | 5 |
| **Donibane** | 31 | 34 | 38 | 38 | 25 | 34 | 1 | 4 |
| **Txantrea** | 105 | 149 | 137 | 179 | 55 | 77 | 2 | 10 |
| **Guztira** | 749 | 922 | 948 | 1.146 | 613 | 373 | 30 | 79 |

**NAFARROAKO GOBERNUAREN TITULARTASUNEKO PRESTAZIOAK ESKURATZEA:** kotizaziopekoa ez den baliaezintasun-pentsioa; Gizarteratzeko errenta/Errenta bermatua eta gizarteratzeko ez-ohiko laguntzak, familia-esparruan mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko eta desgaitasuna dutenendako.

**- Kotizaziopekoak ez diren erretiro-pentsioak.** 65 urtetik gorako 552 pertsonak jasotzen dituzte pentsio hauek Iruñean.

- **Kotizaziopekoak ez diren baliaezintasun-pentsioak.** 2017an, Iruñean 410 pertsonari aitortu zaie prestazio hori; horietatik % 51 emakumeak dira.

- **Gizarteratzeko errenta / errenta bermatua.** 2017an, Errenta Bermatuaren 6.554 eskaera izan dira hirian (% 60 emakumeenak eta % 40 gizonenak). Onuradunak familien barruan sar daitezkeela kontuan hartuta, onuradunak guztira 12.959 direla estimatzen da; horietatik % 34 adingabeak dira.

- **Ezohiko diru-laguntzak.** 2017an, guztira 425.109,54 euro jo zuten 491 laguntza eman ziren.

- **Desgaituentzako diru-laguntzak.** 2017an, 41 hartzaile daude Iruñean.

- **Mendekotasuna duten pertsonak familia-esparruan zaintzeko diru-laguntza.** 2017an, laguntza horien 3.315 onuradun daude.

| Oinarrizko gizarte-zerbitzua | G | E | Guztira, oro har |
|---|---|---|---|
| **BUZTINTXURI** | 12 | 14 | 26 |
| **ALDE ZAHARRA** | 34 | 92 | 126 |
| **TXANTREA** | 143 | 256 | 399 |
| **ZABALGUNEA** | 120 | 345 | 465 |
| **ERMITAGAÑA / MENDEBALDEA** | 120 | 213 | 333 |
| **ETXABAKOITZ** | 33 | 55 | 88 |
| **ITURRAMA** | 127 | 239 | 366 |
| **MENDILLORRI** | 53 | 72 | 125 |
| **MILAGROSA - AZPILAGAÑA** | 134 | 251 | 385 |
| **ARROTXAPEA** | 143 | 218 | 361 |
| **SANDUZELAI** | 85 | 126 | 211 |
| **DONIBANE** | 142 | 288 | 430 |
| **Guztira, oro har** | 1.146 | 2.169 | 3.315 |